

## **“Lumen et vis” (“Argia eta indarra” · “Luz y fuerza”)**

**San Migel Eliza** · maiatzak **16** de mayo **19:30** (larunbata · sábado)

**Aequus Ensemble**

**Aitor Biain-Bidarte** (zuzendaria director)



- **Dos melodías elegíacas, op. 34** · E. Grieg (1843)
- **Obertura en Do Mayor, d. 591** · F. Schubert (1797)
- **Sinfonía nº 7 en la mayor, op. 92 I.** · L. van Beethoven (1770)

---

### **Egitarauari buruzko oharrak:**

Programa honetan argia eta indarra ez dira aurkako kontzeptuak, baizik eta elkar osatzen duten energiak: argiak barneko emozioa agerian uzten du; indarrak, berriz, mugimendua eta bizitasuna bultzatzen ditu. Ibilbide honek erromantizismo nordikoaren barnebiluztasunetik Beethovenen indar erritmiko ospetsura eramaten gaitu, zauri intimo batetik baieztapen distiratsura.

---

### **Aequus Ensemble**

Hamabi urtetik gorako ibilbidea du Aequus Ensemble talde sinfonikoak. Euskal Herriko hainbat lekutako musikariek osatzen dute, eta sortu zenetik Aitor Biain Bidarte du zuzendari. Errepertorio zabala lantzen du, barrokotik XX. mendera bitartekoa, klasisismoa eta erromantizismoa, hainbat etapatan, uztartuz.

Harizko, ilusioz beteko haizezko eta perkusiozko 35 musikariz osatua dago, eta azken emanaldietan ondorengo lanak interpretatu ditu, besteak beste: J.S. Bach-en Brandeburgoko 3. Kontzertua, W.A. Mozarten 40. Sinfonia eta Kv. 138 Divertimentoa, J. Haydnen 101. Sinfonia, L.v. Beethovenen 1., 3. eta 6. Sinfoniak, F. Mendelssohnen 10.

Harizko Sinfonia, R. Wagnerren Sigfridoren Idilioa, E. Elgarren Mi minorreko Serenata, Grieg-en Holberg Suitea, B. Brittenen 4. Sinfonia Sinplea edo J. Sibeliusen 5. Inpromptua. Gainera, hainbat abesbatzarekin elkarlanean aritu da proiektu artistiko ugarritan. Aequus Ensemble orkestra-musikaren panoraman finkatu da eta Debagoienan ez ezik, Euskadiko beste eskualde batzuetan ere ematen ditu emanaldiak, kultur programetan txertatuta.

---

### **Aitor Biain-Bidarte (1983)**

Klarinete, saxofoi eta kantu ikasketak egiten hasi zuen musika ibilbidea (Oñatiko Musika Eskolan). Ondoren, Kantu ikasketak (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioan), Musikaren Pedagogia ikasketak (Musikenen), Abesbatza eta Orkestra zuzendaritza ikasketak (Musikenen) eta Investigación musical masterra (UNIR) eta Gestión Cultural formakuntza jaso du. Hainbat zuzendaritza ikastaro eta seminario egin ditu ospe handieneko irakasleekin. Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatzaren, Bergarako Orfeoiaren, Oñatiko Ganbara Abesbatzaren, Hots Abesbatzaren eta Ganbara Gazte-Txikiren zuzendaria da. Hainbat eta hainbat sari irabazi ditu, tartean Zuzendari onenari emandako bi sari (Tours/Frantzia eta Arezzo/Italiako nazioarteko lehiaketetan). 5 disko grabazio zuzendu eta editatu ditu eta 30 lanetik gora estreinatu. KUP Taldean abesten du. Honekin batera, Oñatiko Musika Bandako zuzendari da eta baita Aequus Ensemble orkestra sinfonikokoa..